

# ATAÑO, HERRI-LITERATUR-GINTZAREN EZPALA

Mikel Carcedo


Xalbador Zapirain Ezeiza, "Ataño" 1912. urtean jaio zen Errenteriako *Bordaxar* baserrian. Hil, berriz, aurtengo urtarrilaren 2an hil zitzaigun.

Jaiotetxean bertan izan zuen ahozkotasuna, bertsolaritza eta herri-literaturarekin harremana jaio orduko Xalbadorrek. Izan ere, aita eta osaba –Joxe eta Juan Krutz anaiak– bertsolariak ziren. Mutil koxkorra zela bertotan moldatzen zen bera ere. Haren etxeko sukaldetan *Txirrita* sarri izandakoa zen. Giro hartan ernalduriko landarea izaki, batetik, eta, bestetik, idazteko zaletasuna ere gaztetandik bere-berea izanik Zapirainarren artean arrastorik utziko zuela pentsa zitekeen. Beste hainbati bezalaxe, ordea, Espainiako gerra zibilak inarrosaldi latza eman zion landare hari. Ia-ia zurtena hautsi zion baina ez, ahatik, zainak zituen lurretik aterarazi.

Antonio Zavalak, Auspoa liburu-bildumako arduradunak, plazaratu zuen 1979an idazle berantiar hau. Urte hartan atera baitzen argitara seguru aski Xalbadorren lanik onena izan dena: "Txantxangorri kantaria". Ordurako bazituen idatzirik hamaika bertso sorta. Haietako batzuk argitara emanak ere bai "Zeruko Argia"n, baina liburusoka aberatsa ekarri behar zuen puntako prosista ezagutzear zegoen. Orduz geroztik argitara emaniko lanei oraino bere argitaratu gabeko ondarea gehitu behar zaio, inondik ere. Antonio Zavalaren hitzez baliatuko gara hau hobeto isplartzeko: "(...) inprentara bialtzeko beste bat ia prestatu diot: Markes-gaiak" (...) "Aren bertso-lanik aundiena, ordea, ez da oraindik argitaratu. Esku-idazkia ementxe daukat maai gainean: Jesusen bizitza, bi milla bertso baiño geiago dituana" (...) "Aren eriotzarekin idazle aundi bat galtzen du, beraz, Euskal Erriak; baiña aren lan guziak argitaratutakoan aundiagoa izango dana"

Guri dagokigunez aurtengo urtarrileko Kultura Batzordera eramandako mezu bera berrestea besterik ez zaigu geratzen. Aproposa litzateke Errenteriako Udalak honelako semearen ohorez argitaratzeke duen obra argitara dadin ekimenik abiaraztea hark utzitako altxorra osatu ahal izateko. Iniziatiba hartu, argitaratu edota beste erakunderen batekin elkarlanean aritzea litzateke herri literaturgintzak galduriko izarrari zor zaion begirunearen adierazleatariko bat.

"Ataño"ren obra argitaratu zabaltzear dugu oraindik.



Salvador Zapirain Ezeiza, "Ataño" (1912-2000).



"Ataño"ren aita, Joxe, bere bederatzik semeekin alargundurik geratu ondoren.

